

Europa

Xabier Alday Amiano

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2009



Zumaiko Udala

*enkar
txanpu*



Europa

Xabier Alday Amiano

Julene Azpeitia 22. ipuin lehiaketa

2009

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Xabier Alday Amiano (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

la etxe guztietako ia leiho guztiak zabalik egunsentiari aurre egiteko Mediterraneoak miazkatu hiritzarrean. Hoteletakoak ordea ilunpetan. Hutsik, hiribide nagusienak itsasora begira, gauez biztanle eta bisitari guztiak mehatxu lazgarri batetik atera balituzte bezala. Suzanne lotan. Mairidire bihurrietan bilduta datza, adats luzeak nahasian, beso biluzia burkopetik agerian. Badirudi ez duela arnasten, errenazimenduko margolari batentzat bere distira guztian paratuta.

Bizpahiru urrats eskasetara kaiolatua, hiriaren diseinu eta arkitekturan hainbeste eragin izan duen artistaren omenez, Ibrahim deitu txantxangorria. Kaiola, inoiz baino garbiago uzteraino marruskatu duten tximinia faltsuaren barnean dago. Lore bakanak barroteen bestaldean, fruituz —sagar, madari, melokotoiz— betetako kaikuarekin. Lo Ibrahim ere, burua hegoen emetasunpean bilduta.

Fredik ere itxita ditu begiak. Behar ez eta errezetatu ere egin ez dizkioten altzairuzko armazoidun betaurrekoak erabat zabalik bideogintzari buruzko liburu-dorrearen gailurrean. Ahoz gora, sudurrak gilak ura bezala ebakitzen ditu ametsak. Suzanneri azaldu dionez, amaren aldetik datorkion sudur hori, aurpegian erantsi dioten ordezeko bitxi eta attrezzo deigarria, Fredi gainontzeko gizaki guztietatik bereizten duen ezaugarria da: ezkutatu ezinekoa, itzela, irribarre zabal eta kutsakorra erakusten duten hortz-lerro zuri ezin berdinagoaren gainetik.

Amoranteak. Hitz ederra, goxoa belarrietarako. Suzannek, elkarrekin larrua jo baino zerbait gehiago egiten dutela pentsatu nahiko luke, baina ez daki. XXI. mendearen hastapenetan hiri kosmopolita hau mundu osoko mapa eta telebistetan kokatu zuen arkitektoak amaitu gabe utzitako zortzi erpineko dorrearen gailurrean, egunsentiak urre koloreko inskripzioak nabarmendu ditu, zurbilegiak oraindik irakurri ahal izateko. Isiltasun zurikaila bazter guztietan. Igande goiza urratu berria hiritzarrean. Itsasoarekin bat egiten duen gandua hiriaren inguruko muinoen mendizerra estaltzen du. Txinatar eta magrebtarren bazarrak baino ez dira irekiko gaur.

Dutxatu ondoren, Suzanne terrazara atera da, xukaderan bilduta soina, izter luze harroak agerian, ura larruazaletik irristaka.

—Lainotuta zagok —aipatzen du—. Meskita ikustera joan gintezkek!

Fredik zerura behatu du.

—Ez al dun ba hire lagun hori deitzekoa? Zulatuko din oraindik, ziur —dio.

Bossa Nova aireak patioan. Ibrahimen kaiola terrazako atearen bao ondoko aulki baten gainean utzi dute. Fredi olanazko hamakan etzanda, laranja bat zuritzen. Begi bistakoa da hiriak eskaini bizimodu errazaz maiteminduta dagoela. Inori aitortu ez dion lotura sakonak batzen ditu: XIX. mendearen bigarren erdialdetik atzera, legeari, zorrei edo egunerokotasunaren diktadurari ihesi, eskultore eta margolari bohemiaren ugarien babeslekua izan da, eta horietatik handiena, baina ez ezagunena, tranbia batek harrapatu zuen, hiriaren alderdi zaharreko errebaletan, auskalo zeren bila zebilela. Bizar eta txima nahasi bezain luze eta zuriekin, arroparik arloteenak soinean, inork ezagutu ez eta ia hiru hilabetez —legeak ezartzen zuen epea betetzeko zorian— kaleko eskaleen gorpu izoztuekin batera gorde zuten, harik eta hildakoaren benetako nortasunaz ohartu ziren arte. Mende bat beranduago egun berean jaio zen Fredi.

Suzanneren alokairupeko pisua kanposantura bidean dago. Zabor usainak langile arrunten etxaldeak salatzen ditu. Ez da anbulatoriorik, ez lorategirik, ez ikastetxerik, Frediren auzoan ez bezala, baina gurasoen diru-laguntzarik gabe besterik ezin du ordaindu. Fredik Nietzscheren aipu nihilista erakutsi dio: artea da nazioen historiaren benetako eragile bakarra. Bere nortasun artistikoaren bereizgarrien artean —hiruzpalau urte dira bideo digitala jorratzea erabaki duela— oraindik amaitu ez den prozesu baten zantzu nahasiak antzematen dira: hedonismoari emandako arte ederretako lizentziatu berria, irakaskuntzan lanposturik aurkitu ez eta bekarik lortu ez duten ikaskide gehienak, tabernetan zerbitzari gisa edo telefono lineatako operadore gisa dihardutenean, bizitzaren zentzuaren bila etxetik ia bi mila kilometrora. Egun batean bilakatuko den artista handiaren izaera eraikitzen dihardu, denbora kontua besterik ez baita, sortzaile ikaragarria, hitzaren zentzu modernoan, alegia: lagunarteko erakusketa kolektibo bakarrean soilik hartu du parte, baina jeinu biziaren dohainak ditu. Sortzaile askea, kontzeptuekin esperimentatu zalea: egia esan, obra bakarra baitu gogoan, bere buruaren marka irudia. Atsegin ditu zuhaitz garaien itzalek babesturiko hiribide zabalak, jatetxeak, gau-jai amaigabeak, droga eskuratzeko erraztasunak.

Suzannek arto koloreko jertse motza jantzi du.

—Kaferik nahi? —eskaintzen dio mutilari.

—Bai! Hutsa! —erantzuten du lipar batez pentsatu ostean.

Suzanne aparta da esku-lanetan. Sukaldari trebea. Gauza bakoitza bere lekuan, eta leku bat prest gauza bakoitzarentzako; horrek sormen-indarra eragozten dio Frediren ustez. Jantzi garestiegirik ez baina arropa lisatu berriekin, txukun, ateratzea du gustuko. Igogailu zaharkitua nekez igotzen da Suzanne bizi den seigarren solairuraino. Suzannek tentu handiz ireki eta ixten ditu atetzarrak. Mendeen mendeetan atzera egin behar balu bezala jaisten da tramankulua. Suzanneri Fredi eta bere aitaren irudiak elkarren artean nahasten zaizkio. Aitaren emazte berria. Burujabetza egarria. Besteen estimuarekiko mendekotasuna. Fredi ordea erakargarria da, liluratzaille petoa. Ez da soilik edertasun fisikoa, gorputz atalen neurri orekatu eta ezin hobeak, hitzez soilik azaldu ezin den beste zerbait da, Fredi ezagutu behar da ulertzeko. Suzannek bere kautarako gordetzen ditu etorkizunerako egitasmo guztiak. Fredi, berriz, ahozabal hutsa da; ez daki isilean ezer gordetzen. Suzanneren jokabidea lehorra gerta dakioke hasierako izotza gainditzeko pazientziarik ez duenarentzat, nahiago du entzun ezer esan aurretik. Emakume maneia erraza,

berak aurkakoa iritzi arren. Bigarren solairuaren parean, igogailuko ispilu arrakalatuari erreparatu dio. Inori ez zaizkio burutapen hauek ustekabeen etortzen. Antzeppen baten modukoa da, apurka-apurka maitearen benetako aurpegia azaleratzen da eta azkenik, hautatu beharra dago. Suzanne beldur da ez ote duen bere adimena larregi baloratzen. Dohain abstraktua eta guztiz subjektiboa da, bere aitak sekula ulertuko ez duen bizimodu berri honi aurre egiteko intuizioa falta zaio ordea.

Etxepeko okindegian kafesnean bustitzeko opil egin berriak erosita itzuli da Suzanne. Goizeko hamarrek jotzeko minutu gutxi falta dira telefonoak jo duenean. Suzannek erantzun du; egongelan zutik nederlanderaz aritu da.

—Claudette zatorrek hondartzara joateko! —Suzanneren ahotsa zalantzas bete.

Fredik kuriositatez itxaroten du: Claudettek autoa dauka, mugimendu askatasuna, denboraren aurkako antidotoa. Eguratsa, sortzailearen borondatearen esaneko, argituz doa. Kanean, lehen autoen burrundara. Eguzkia une batez azaldu, ezkutatu, eta berriro lainoen artetik gailendu da. Claudette eguerdian agertu da. Fredi bat-batean altxatu da hamakatik txirrina entzutean. Urrutira, zortzi erpineko dorrea itzaletatik jausita eguzki errainuen besoetara erori da. Argi uneetan, goi erpineko hizkiak nabarmentzen dira, arabiarren menpe emandako mendeetan zehar ostiraleroko otoitzerako deia. Claudetten gona gamelu larruzkoa da —zin egin du—, blusako goiko botoiak askatuta daramatza. Sendoegia dirudi, gona laburregiaren barruan.

—Berandutu egin gintunan bart eta ez ninan deitu! —Suzannek Claudetteri.

—Ez nindunan etxetik atera gau osoan, Alberto tentelak noiz deituko zain! —dio Claudettek, hiriaren kasko historikoa erakusten duen postalaz haizea eraginez.

Suzanne arropak aldatzera sartu da logelara.

—Urde zikina! —oihu egin du Claudettek Suzannek entzun ahal izateko—. Zortzietan deitzekoa huen, baina hamaikak arte ez zinan kasurik egin! Eta orduan, berehala deituko zidala esanez eten zinan. Lo hartu ez ninan ba sofan, azkenerako!

Suzanne toles askoko gona urdin argia eta limoi mardulen koloreko mahuka gabeko kamiseta soinean dituela atera da logelatik. Ispiluaren aurrean bere islaren atzealdeari erreparatu dio. Claudettek isildu gabe darrai:

—Herri honetan ez zakiten oraindik emakumeekin tratatzen! —Fredidakusa—. Hemen ez diten duintasunik!

Claudettek katuarenak oroitarazten dituzten begi berdeak ditu. Aita Frankfurteko burtsako brokerra duela entzun du Fredik. Suzannek, berriz, hori guztia esamesa hutsak direla dio, baina ez dio egia kontatu. Edo ez daki.

—Belgikan ez dun horrelakorik gertatzen! —amaitu du deitoreak Claudettek.

Suzannek balkoiko atea itxi eta Ibrahimen kaiola barrura sartu du.

—Sargori zagon —moztu du Fredik—. Utzizan kanpoan!

—Triste zirudik —erantzun dio Suzannek.

—Bai zera! Hire irudipenak ditun horiek!

—Aurrekoa, joan zen astean ezustekoan hil huen —Suzannek Claudetteri.

Igogailua ez da 6. solairutik mugitu ere egin. Claudette sartu da lehena. Fredik ateak zabaltzen lagundu dio. Elkarren aurpegiak tarte eskasera, hasi du igogailuak beherakoa. Claudettek eskatuta, zerbait hartzera sartu dira parean suertatu zaien lehen kafetegian. Fredik atea ireki die bi emakumeei. Barruan ez dute inor aurkitu, ohikoa dirudien egoiliarra baino ez kirol egunkariak aperitifak hartzen.

—Berrito deituko zionat, adarra jotzeagatik besterik ez bada ere — erdeinuz dio Claudettek—. Biharamuna izorratuko zionat!

Telefonoa marmolezko mostradorearen beste muturrean dago eta Suzanne hitz eta pitz aritu denez, Fredik ez du Claudette eta senargaiaren arteko hitz-jarioa entzun.

—Ez din axola? —erdi brometan galdetu du Fredik Claudette seinalatuz.

—Ezta batere! —Suzannek betozkoa zimurtu duen moduagatik, ez du onez hartu galdera.

Lohi-babesa maspildutako Skoda urdin iluna du Claudettek.

—Gustatzen nire autoa? Bigarren eskukoa erosi dut —zirikatzen ditu lagunak—. Ez nagok ohituta oraindik eta nahiago nitek hik gidatuko bahu — zuzendu zaio Frediri.

—Niri berdin zaidan —dio Fredik, Claudetten eskua alderatzeko presa barik.

Bolantearen aurren eserita, motorra piztu du. Suzannek, atzeko eserlekutik, adi-adi jarraitzen ditu Fredi zein Claudetteren aurpegiera eta keinu guztiak.

—Zer diok? —galdetu dio jolasguraz Claudettek Frediri.

Autoak urtebete baino ez duen arren, sabaiko pintura margultzen hasi zaio, bolanteko larrua jaregiten.

—Balazta bigunegiak ditin...—erantzuten dio Fredik.

—Duela gutxi eman ez nian ba olioak aldatzera!

Frediri berehala soa Claudetteren izterretan behera irristatu zaio.

Suzannek nabarmen hauteman du Frediren begiratuaren noranzkoa. Inork ez ditu kaleak berak adina ezagutzen, eta laster, aurreko eserlekuetako lepokoei eutsiz, hiriaren irteerara gidatu ditu. Autoak karrikez jabetu arren, ez dituzte semaforoek geldiarazi. Bidegurutze ugari diseinu oktagonalen bidez zabaldu dituztela ohartu da Suzanne. Altuera gutxiko eraikin zaharkituz gainezka dauden auzoetatik barrena joan dira, hautsaren eta euriaren ondorioz izena erabat ezabatutako fabrika abandonatuak atzean utzita, kostalderako saihebidera iritsi arte. Claudettek ispilutik begira esan dio Suzanneri:

—Herri honek gaixotuko nau! Mexikora alde egitea pentsatzen ari naun!

Aireportuaren paretik igaro dira. Auto ilara luzeak itsasora bidean. Hiriko trafiko guztia, autobusak, kotxe ttipiak, furgonetak; aurrez hemen biltzea hitzartu balute bezala.

—Gidatzen ere ez ditek ikasi aluok! —asaldatu da Claudette—. Ezin ditek aurreratu? Tira! —protestatu eta bozina jotzeari ekiten dio.

—Alferrik ari haiz —erantzun dio Fredik.

Claudettek jaramonik egin gabe purrustaka jarraitzen du.

Aurretik daramaten autoaren atzeko eserlekuan, bi hurrek, itzuli eta harrituta begiratu diete. Kristalaren eraginez akaso, aurpegiak zurbilegiak dira daukaten adinerako, garaiz aurretik zahar-itxuratuak. "Beraiek jakingo dute zergatik!", otu zaie aldi berean hirurei, inork pentsamenduari ahotsa eransten ausartu ez arren.

Eguzkipeko lur azalera osoa lasto kolorekoa da. Kostaldearekiko paraleloan, errepideaz bestalde, garbitasun faltagatik bainua debekatu duten hondartza, kanpalekua, iragarki taulak, eta aspaldi itxitako hotela, hurrenez hurren. Basamortukoak oroitarazi dizkieten dunak.

—Albertok zioenez Europako neska ilehori eta begi urdin guztiak biltzen omen gaitun hondartza honetan! Suediarrak, alemaniarak, belgikarrak...

—Flandestarrak —lehor erantzuten du Suzannek.

Fredik ez du soa errepidetik alderatu.

—Ikuspegi zabaltasunak eta larruazal zurbilak erotzen ditu! —Claudettek.

Frediren gainera jauzi eginez, bozinaz aurreko autoak uxatzen saiatu da.

—Apropos ari direla zirudik! —kexu da.

Frediren belarrientzako soilik jarraitzen du xuxurlaka irri gaiztoz:

—Gajo horiek, ia lotsaz beteta, esperientzia berriak dastatzera etortzen ditek hona!

Suzanneren aurpegiera lasaiak aspermena islatzen du ezinegona baino.

Joan zen mendeko 70eko hamarkadaz geroztik, presaka eraikitako hotelen labirintoak inguratzen du hondartza. Udan soilik berpizten diren herrietako ohiko hil-hurreneko landaretza, sasiak bazter guztietan. Nonahi aparkatu autoek speed lerroak gogorarazi dizkiote Frediri. Hondartzatik urruti aurkitu dute autoa aparkatzeko zokoa.

—Ateak ondo itxi dituzuela egiaztatu! —agindu die Claudettek.

—Utikan! Traste zahar hori ez din inork lapurtuko —oldartu zaio Fredi.

—Orduan ez duk atsegin? —Claudettek, autoaz edo beste zerbaitez ari den zehazteke.

Sargoriak zoladura altxatu duen galtzadaren zabalera osoaz jabetuta abiatu dira hondartzara. Elkarren gainean eraikitako fatxadek aspaldi galdu dute dirdira. Masen kontsumorako iragarkiak paretetan. Mundu guztia bazkaltzera ezkutatuta.

Fredik, zangoen gihardura nabarmentzen dion galtza motzak daramatza soinean, basamortuko tuareg eta beduinoen durbanteen urdin beirakarakoak. Hatz txikia adina lodi ez den gerrikoaz eusten ditu. Laurehun metrotako

korrikalariaren akatsik gabeko gorputza eskuratu du, besoetako larruazalaren azpitik odol-basoak antzeman litezke lokarrien gisa gorputz osoan zehar hedatzen. Kirolariaren izerdirik gabe eskuratu ere. Neskek arropak erantzi dituztenean, Claudettek sandalien gainean utzi bitartean, Suzannek behar bezala tolestu ditu.

Itsasoa, iltzeak bezain zorrotzak diren harribilez betetako maldaren barrenetik zeruertz guztia estaltzeraino luzatzen da. Fredi sartu da Suzanneren aurretik. Hotza dago ura. Fredi, olatuen aurka oldartu da. Berehala altxatu da, irribarrez. Ezpainetan, kresalaren zaporea. Suzanne ere murgildu da baina Fredirengandik gehiegi urrundu gabe. Astiro-astiro atera du burua uretatik, begiak erdi itxita, non dagoen ahaztu balitzaio bezala. Atzerantz orraztu ditu motots umelak, noiz dagoen ederren jakiteko aparteko sena du. Fredik besoa lerratu dio gerriaren bueltan. Une batez, bikoteak uraren gainetik flotatzen duela dirudi, ondoren, Fredik olatuen laguntzaz, urak guztiz estaltzen dituen eremuraino darama neskalguna. Suzannek burua mutilaren sorbaldan. Claudette hondartzan luze etzanda, Frankfurter Zeitung irakurtzen.

—Zer du? —galdetzen dio Fredik Suzanneri.

—Auskalo! Hilekoa etorriko zitzaion! —Suzannek gogoz kontra.

Toaila banatuetan, Claudette erdian hartuz etzan dira. Claudetteren larruazal beltzarana deigarria zaio Frediri.

—Suzanneri azala erretzen zaion! —apurtzen du isiltasuna—. Nik ekia eskaintzen zionat etengabe, baina hark, lotsaz, ez din onartu nahi!

Claudettek barre ozenez, bere beso eta izterrei begira erantzuten du:

—Bi egunetan lortu diat kolore hau, nudisten senaia batean —erakusleak sabela ukitzean koipe-uhindurak sortarazten ditu.

—Gizentzen hasi haiz! —intentzio osoz bota dio Suzannek.

—Nire flotagailuak ditun —ihardetsi du Claudettek algara betean.

Badute antzik bai, inoiz erazten ez duen soinekoaren zati. Berrito etzatean ordea arrasto oro galdu da. Bi gazte igaro dira euren aldamenetik uretara bidean, begiak Claudetterengandik kendu ezinda. Claudettek ez ikusiarena egin die, Fredirengana pitin bat gehiago hurbilduz.

—Oaxacan urtebete inguru bizitzera joateko asmotan nagon! —esan du azkenik.

Suzanneri bihotzak punpa egin dio.

—Munduko hiririk ederrena dela irakurria dinat nonbaiten —dio Fredik—, baina han ez zagon nudisten hondartzarik!

Claudetten barre ozena!

Oinak zerura destatzen, isiltasun betean. Eguzki izpiek, itsasoko haizea erabat desagertzen denean baino ez dituzte zigortzen. Egun bakarreko epemuga duten gauza guztiek amaitzera datozen unea gerturatzen dator. Laino zuri batek zerua estali duenean, Suzanne tupustean altxatu eta kamisetaren bila hasi da.

—Hator! —dio Claudettek— Aberatsen txaletak erakutsiko ditinat! Hondartzatik paseatu eta agure lizunen ikusmira alaituko dinagu! Hator!

Suzannek amore eman du. Fredik begiak itxita darrai. Claudetterekin kontuak argitzeko aukera aproposa izan liteke. Eguzkia lainoen artetik gailendu da lipar batez eta Claudettek jostatzeko gogoz amorratzen dirudi. Haizeak ekialdetik jotzen du orain. Olatuen apurtzea arroken aurka. Claudettek, jauntxoan etxeen aurrean bularretakoa kentzeko keinuak egiten ditu, izterrak uzkurto edo altxatzen. Suzannek haizearen babesera jo du Claudette ur ertzean luze bezain zabal etzatean. Claudette ura epela dagoela deika hastean Suzannek ez dio jaramonik egin. Claudetteren irria kutsakorra da, bere alaitasuna arratseko azken orduko hotza eta iluntasuna baino boteretsuagoa. Zainetan odola izoztu zaio Suzanneri, ezustean Fredi uretan sartzen ikustean. Arratsaldean baino gardenagoa dirudi itsasoak. Ez da beste inor ageri. Olatuen kulunka emean utzi ditu Suzannek toaletara itzuli denean.

Auzoko gazte txima-luze batzuk aurkitu ditu xukaderen inguruan, nagikerian. Beltzaranak. Batek adi-adi behatu dio. Suzanneri azkenaldian egunkariak betetzen dituzten bortxaketa eta emakumeen aurkako erasoan albisteak datozkio burura. Barre egin dute bere beldurra usainduta. Marmarka hurrena. Begiratu besterik ez dute nahi. Suzannek enoratu nahi ditu, hondartzako dutxa bakarrera doa gorputzeko kresala kentzera. Ura indarrez gainezka porlan hotzaren aurka. Beranduago Fredi dator baina Suzannek ez dio diosalari erantzun. Fredik zeharka begiratzen ditu gazteak, inork ez du soa alderatzen. Fredik xukadera gainean eseri eta arropak janzten ditu. Gazteak karta jokoan geratu dira.

Eguzkia ezkutatzek auzoko kaleak antzaldatu ditu. Jatetxeetako mahaiak nagusitu dira espaloietan. Auzoa itsasora begira dagoen terraza baldarra bilakatu da. Jendetza nahinon. Fredik bi neskak besarkatuta, zaldiak balira bezala gidatzen ditu. Claudettek atsegin du:

—Orain mundu guztiak biokin jotzen duala pentsatuko dik! —algaraz dio.

Suzannek hutsik dagoen mahai bat seinalatzen du.

—Zahar etxea zirudin horrek! —bota du Claudettek.

Suzanneri ez dio axola. Frediren besoa alboratu eta orain bakoitza bere aldetik doa. Fredi Suzannerengana hurbiltzen da:

—Zer dun? —galdetzen dio.

—Oraindik ez haiz ohartu? —Suzanneren erantzun petrala.

Claudettek eteten ditu:

—Begira gizajo horiek —arestiko gazteak dira, enparantza nagusiko arkupeetako petrilaren gainean eserita. Gorputz-atal beltzaranak, xerlo kolorgetuak eguzkipean igarotako arratsalde amaigabeen eraginez, aukerarik gabeko itxaropenaren begirada sumindua soinean—. Ez dute sosik, ez dute ezer. Ez dute lanik ezta aurkitzeko itxaropenik ere. Hona herri honen benetako aurpegia!

Claudettek, Erasmuseko bekarekin Historiako lizentziatura amaitzera etorria den Suzanne, ahuntzaren gauerdiko eztula baino ezdeusago sentiarazten du. Fredik hautatu du non afaldu. Mahaiko mantala ezin zuriagoa da. Musikak, oihu guztiak estaltzeko adina ozen, soto ilun bateko itaunketa gela oroitarazten du. Aiztoak eta sardexkak lanabes kirurgikoen antzera plater garbitu berrien alde banatara. Suzanne ez da gose. Claudettek bere mutil ohiari buruz dio:

—Emakume bakarrak ezin ditin gizon baten behar guztiak ase!

—Hi ez hago burutik sendo! —oldartu zaio Suzanne.

—Egia dun, ordea.

Patxada ez galtzea nahikoa izan du Suzanne kikiltzeko. Fredik mugikorreko mezuak berrikusten ditu. Ez Fredik are gutxiago Claudettek ez diote ukatuko mundu honetan aurkitu eta bete nahi duen zokoa. Claudettek trago batzuk hartzea proposatzen du, Suzannek berriz, etxera itzuli nahi luke baina autoa ez da berea.

—Trago bat, behinik behin! —animatzen ditu Claudettek.

Claudettek barra ondora darama Fredi eta Suzanne, mahai batean esertzen da. Iluntzearekin batera, termometroa zazpi-zortzi gradu jaitsi da.

Ahots urratuak iratzarri du supituki, noizbehinkako gitarra zarrasten artean. Fredi eta Claudette ondoan ditu, baina ez dira ohartu. Kantua aspalditik itxaroten zuen zerbait da, itxaropena galtzeko zorian aurkitutako altxorra. Frediren arreta bereganatu du.

—Entzun! —dio—. Bertako abeslari ezagun batena duk! Letra ederra zaukak!

Esaldi bakunak. Suzannek letania baten antzera errepikatzen ditu. Langileriaren adierazkortasuna. Bistakoa da Fredik ezin duela tutik ulertu. Ez da harrizkoa, herri honetaz dakien bakarra, gizon baten bizitzan objektu dekoragarri hutsa izatearekin aski duen emakumeak kontatua denean. Claudettek hasperenka burua bestaldera itzultzen du. Bere buruarekiko ziurtasun oro errazkeria eta huskeriatan oinarritzen da.

Zerriak akabatzeko gakoaz ireki diote sabela gauari; ertz guztietatik izarrerria autoaren gainean erortzeko zorian dirdiraka. Atzeko eserlekuan, Suzannek biharamunean hartu beharreko erabakiak hausnartzen ditu. Claudette lantzean behin, Frediren gainera oldartzen da makalegi doazen autoak bozinaz gaztigatzeko. Frediren laineza! Hiriburuan, badira alokairupeko logelak non Claudettek, bere maitalearekin, neguko arratsalde ilunak, tximiniako su pindarraren aurrean larrua jotzen igarotzen zituen. Beste etxe batzuetan berriz, ia desagertzeaz dauden animalia exotikoen larruazalen gainean egiten zuten.

Suzanneren auzoko kaleak hutsik daude. Oheratzeko berandu xamar da goizeko bostetan lanera joateko jaiki behar duenarentzat. Atari parean, Claudettek aparkatzen lagunduko al dion eskatu dio Frediri. Honek Suzanneri begiratu dio.

Ezer esateke alde egin du Suzannek, ezertarako astirik eman gabe, bebarruan sartuz.

Igogailuan igo aurretik entzun du autoa kalean behera urruntzen. Leialtasunaren mugak finkatzen irudikatu ditu. Egongelako argiaren giltza aurkitu bitartean itsumustuka ibili da. Lortu duenean, komunera jo eta eskuak garbitu ditu Pilatoren modura. Ez da txintik entzuten etxe osoan. Izutu da. Bere burua ezdeus aurkitu du, esku-hutsik edozein arriskutik defendatzeko. Sukaldean, balkoirako atea irekitzean, belaunek ezin izan diote gehiago eutsi eta ziplo lurrera erori da. Ibrahim hankaz gora datza kaiola barrenean. Suzannek atea ireki du asaldatuta.

—Hilik dago ordea! —oihu egin du zinkurin artean, bakar-bakarrik egon arren.

Zango meheak gakotu eta zurruntzen hasi zaizkio txantxangorriari, ihartutako adaxkak bezalatsu. Lumak jausten. Laranja bateko hazia baino handiagoa ez den bihotzak taupaka egiteari utzi dio. Ez da besterik. Kaiolaren atea zabalik utzi du sukaldeko harlauza gainean arropak erantzi eta ohe gainean etzan denean, lo gehiegirik egingo ez duela dakien arren. Burua damu eta aladurez beteta, ez daki zertan huts egin duen.

Suzannek, bere kautan ez duela inoiz gehiago hegaztirik etxean edukiko dio. Ondoren, apur bat lasaiago, azkenaldian ipurdia gizontzen hasi zaiola otutzen zaio. Beti iruditu zaio horrela. Kirolari ekin beharko dio. Bere aitak idazkari bat eta sei laguntzaile ditu. Belgikako konpainia farmazeutikorik handienaren Europa erdiguneko salmenta zuzendariordea da. Bruselan, hogeita zazpien Europako biltzarra dago, baina Bruselak halere, ez du itsasorik.